

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea Sarien VIII. edizioaren deialdi publikoa eta berriazko oinarriak

2021eko urriaren 1ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2022ko dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2021eko urriaren 29ko ALHAOn — 124. zk. — argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke — www.vitoria-gasteiz.org —, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdira aurkeztu nahi duten enpresek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten erakunde eskatzaileek, dirulaguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

2022ko martxoaren 25ean egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak ingurumen-jardunbiderik onenak saritzeko Itun Berdea Sarien VIII. edizioaren deialdia eta hori arautuko duten berriazko oinarriak. Erabaki horrek administrazio-bidea agortzen du, eta berorren kontra zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik. Nolanahi ere, alde aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, Tokiko Gobernu Batzarraren aurrean, hilabeteko epean, hau argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berriaz edo ustez ebatzi arte—. Guztia ere, Administrazio Publikoen Administrazio-prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan xedatutakoaren ildotik, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki deritzoten beste edozein errekurtso baliatzeko aukera.

Deialdiaren berriazko oinarri arautzaileen publikotasunaren inguruan araudietan xedatutakoa betetze aldera, argitara ematen dira:

1. oinarria. Deialdiaren xedea

Ekimenari atxikitako enpresek — Nazio Batuen Erakundearen garapen iraunkorreko helburuekin bat etorritik — beren jardueren ingurumen-inpaktua murriztu eta ingurunearekiko harremanak hobetzeko eta, hartara, ekoizpen-sistema lokalak ekoizpen-eredu zirkular eta karbono gutxikora trantsizioa egin dezan laguntzeko martxan jarri dituzten jardunbiderik onenen balioa publikoki aitortzea da Itun Berdea Sarien deialdi honen xedea.

Negozio- eta ekoizpen-ereduak eraldatzearen alde apustu egiten duten enpresen eta enpresa-esparruko organizazioen plataforma bat da Itun Berdea, ekonomia berde eta zirkularrerako trantsiziora bideratuta, funtsezkoa izaki hori klima-aldaketaren kontrako erronkari ekiteko. Kudeaketa berdearen jarraibideak bere egiten dituzten enpresak dira, garapen ekonomiko iraunkorra sustatzea helburu dutenak. Ingurumen-kudeaketarekin konprometitutako profesional eta enpresen sarea sortu eta sendotzea du helburu, Gasteiz ekonomia berde eta zirkularren erreferente gisa posizionatu dadin, eta hiri berdearen marka indartu. Enpresei —beren jarduera-eremua edo tamaina edozein izanik ere— ingurumen-konpromisoak aurrera eramateko eskaintzen zaien aukeratzat jotzen da, beren jarduera eraginkortasun handiagoz ekoizti, banatu eta kontsumitzeko modu batera bideratzeko aukeratzat.

Hauak dira VIII. Itun Berdea Sarien deialdiaren helburuak —funtsean, garapen iraunkorreko 12. helburua (kontsumo eta ekoizpen arduratsua), 13.a (klimaren aldeko ekintza) eta 17.a (helburuak lortzeko aliantzak) betetze aldera—:

— Itun Berdeari atxikitako enpresek klima-aldaketari eta horren eraginei aurre egiteko egiten dituzten ahaleginak jendaurrean saritu, ezagutarazi eta zabaltzea.

— Enpresen esparruan erabilgarritasun praktikoa duten jarduketak ezagutzera eman eta erakustea, gida eta eredu gisa funtziona dezaten, eta beste enpresa batzuetara aldatzerik izan dadin.

— Ingurumenaren alorreko inplikazioa, motibazioa eta kontzientziak lortzea, bai enpresen kudeatzaileena, bai langile guztiena ere.

— Ingurumenarekiko begirunea sustatu eta garapen iraunkorraren aldeko ekintzak bultzatzea, era guztietako enpresa-jardueretan.

— Negozioa egiteko —enpresa egiteko— modu berriak deskubritzea, non ingurumen-inpaktu positiboek pertsonen bizitza-kalitatea eta planeta hobetzen lagunduko baitute.

2. oinarria. Hautagaitzak

Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea VIII. Sarietara beren hautagaitza aurkezten duten enpresek ekimen horri atxikita egon beharko dute, eta beren prozesu, produktu edo zerbitzuen ingurumen-inpaktua modu aktiboan murrizteko jardunbide onen bat ezarria izan beharko dute 2021-2022 aldian, garapen iraunkorreko helburuak betetzeko konpromisoaren adierazgarri.

Enpresa bakoitzak gehienez bi jardunbide egoki aurkeztu ahal izango ditu.

Jardunbide egoki guztiei, sarituak gertatu ala ez, zabalkundea emango zaie, Gasteizek garapen iraunkorrarekin hartua duen konpromisoari Itun Berdearen plataformak egiten dizkion ekarpenen erakusle diren aldetik.

3. oinarria. Enpresak deialdian parte hartzeko bete beharreko baldintzak

Merkataritza-jardueraren bat duten enpresa pribatuak izan ahalko dira oinarri hauetan arautzen diren laguntzen onuradun, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, betekizun hauek betetzen badituzte:

— Itun Berdearen plataformari atxikia egotea.

— Gasteizko udalerrian kokatuta egotea.

— Indarrean dagoen araudiko betebeharrak betetzea, eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea, erregelamenduz zehaztutako moduan.

— Ezingo dute inolaz ere parte hartu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2. artikuluan adierazten diren debeku-egoeretakoren batean dauden enpresek.

4. oinarria. Kategoriak eta sarien zenbatekoa

Sari hauek izango dira, parte hartzen duen enpresaren tamainaren arabera:

Mikroenpresen kategoria: 1-9 langile.

Lehen saria, 2.500,00 eurokoa.

— Accesita, 500,00 eurokoa.

Enpresa txikien kategoria: 10-49 langile.

Lehen saria, 2.500,00 eurokoa.

— Accesita, 500,00 eurokoa.

Enpresa ertain eta handien kategoria: 50 langile edo gehiago.

Lehen saria, 2.500,00 eurokoa.

— Accesita, 500,00 eurokoa.

Indarrean dagoen zerga-araudiari lotuta egongo dira sariak.

Era berean, esker ona adierazi ahal izango zaie Itun Berdeari atxikita egonik beren jarduera-eremuan ekimenak garatuz plataforma horrek ordezkatzeko dituen balioen presentzia areagotzea lortu duten sozietate publiko eta zuzenbide publikoko entitateei, baita irabazi-asmorik gabeko entitateei eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenei ere.

5. oinarria. Jarduera-eremua

Sari honetara aurkeztutako jardunbide-egokiek garapen iraunkorrek 12. helburua (kontsumo eta ekoizpen arduratsua) eta 13.a (klimaren aldeko ekintza) betetzen lagundu behar dute, eta enpresak bere antolakuntzan ezarri dituen alderdi zehatzen ingurukoak izan beharko dute, hobekuntza-esparru hauetakoren batean:

— Ekonomia zirkularra.

Ekodiseinua, serbituzazioa, konponketa aurreratua, berregokitzapena, birmanufaktura eta birziklatze aurreratua, lehengaien kontsumoa murriztu eta material sekundarioekin ordeztuko, hondakinak minimizatu, berrerabili eta balioa emateko, eta abar.

— Karbono-aztarna.

Berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko neurriak —zuzeneko energiaren eta materialen baitako energiaren kontsumoa murriztuz, energia berriztagarriak sortuz eta abar—, eta jardueraren inpaktu klimatikoa murrizteko konpentsazio-ekintzak.

— Aztarna hidrikoa.

Eskaria kontrolatzeko neurriak —datu masiboak eta abar direla medio—, eta enpresan zuzeneko nahiz zeharkako ur-kontsumoa murrizteko ekintzak.

Ilido beretik, enpresaren karbono-aztarna edo aztarna hidrikoa ez ezik, enpresaren jarduerak beste inpaktu-kategoria batzuetan duen eragina murrizteko beste edozein neurri: produktu edo zerbitzu baten bizi-zikloa aztertzeke metodologia bat aplikatzea —fase bakoitzak lehengaiak lortzeko prozesuan, fabrikazioan, biltegitratzean, banaketan, kontsumoan eta bestetan duen ingurumen-inpaktua ezagutzeko—, ingurumen-aztarna korporatiboa kalkulatzeko, produktuaren ingurumen-adierazpena eta abar.

— Ingurumen-sentsibilizazioa.

Bozgorailuarena egiten duten ekintzak, enpresaren interes-taldeetan ingurumen-zaintza hedatu eta sustatzen dutenak, iraunkortasunaren aldeko ekintzara eragile gehiago erakartzen, eta abar.

— Naturan oinarritutako konponbideak.

Lurralde- eta hiri-kudeaketaren arloko hainbat arazori konponbidea bilatzeko naturako printzipioak baliatzen dituzten ekintzak; esaterako, klima-aldaketara egokitu, baliabideak kudeatu, elikagaien segurtasuna bermatu edo airearen eta ingurunearen kalitatea zaintzeko. Ikuspegi horretatik, enpresak jadanik ez dira naturako produktu eta zerbitzuen onuradun pasibo hutsak; aitzitik, modu proaktibo eta estrategikoan babesten, kudeatzen eta lehengorutzen dituzte ekosistemak.

6. oinarria. Balioespen-irizpideak

Enpresek 2021-2022 aldirian ezarri dituzten jardunbide egokiak balioetsiko dira, ingurumen-alderdiak hobetzera zuzenduak direlarik, baliabideen —lehengaiak, ura, energia— kontsumo arduratsu eta eraginkorraren bitartez, emisio eta isurketen murrizketaren bitartez, eta abar.

Bereziki kontuan hartuko da ekintza isolatuak ez izatea, enpresak epe ertainerako duen estrategiaren parte izatea (horizonte 2030), eta enpresa-sektoreak behar duen trantsizio-ekologikoaren baitako jardunbide egokien adibide izatea.

Jardunbide egoki horiek balioesteko, alderdi hauek hartuko dira aintzat:

- Jardunbide egokiaren aplikagarritasuna eta errepikakortasuna.
- Jardunbide egokiaren originaltasuna eta efikazia.
- Izaera berritzailea.
- Ingurumen-inpaktu positiboa.
- Aurkeztutako lan, jarduera edo proiektuaren eragin soziala.
- Planeta eta pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko laguntza.
- Epe ertaineko plangintza baten barruko jardunbide egokia.

Balioespen-prozesuan, egokitzen jotzen bada, ziurtagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango du epaimahaiak, eta behar diren egiaztapenak egin. Jardunbide egokiari eta horren inpaktuari buruzko informazio egiaztagarria eman beharko dute hautagai diren enpresek —agiri ofizialak, material grafikoa edo digitala, eta abar—, organizazioan ezarri diren alderdi zehatzen inguruan.

Era berean, ebaluazio-ikustaldiak egin ahal izango ditu epaimahaiak parte hartzen duten enpresetara, aurkeztutako jardueren ezartze-maila bertatik bertara ezagutzeko.

7. oinarria. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Dokumentazio hau erantsi beharko zaie oinarri hauetan arautzen diren eskabideei:

- Eskabide-orria eta zinpeko aitorpena (I. eranskina).
- Enpresaren IFZren kopia, eskabidea aurkezten duen pertsonaren nortasun-agiriaren kopia, eta, hura titularra ez bada, jarduteko ordezkatzeko-ahalmenaren egiaztagiria.

— Fitxa teknikoa —II. eranskina—. Garatutako jardunbide egokiaren eta hartutako neurrien alderdirik nabarmenenak eta horien ondorioz ingurumenean eta enpresan izandako emaitzak eta onurak zehatzen dituen oroitidazkia erantsi beharko zaio. Gehienez lau zapabost orriko luzera gomendatzen da, horretarako.

— Enpresaren logoa; aukeran, formatu bektorialetan (.ai, .pdf, .eps). Bestelako formatuen kasuan (.jpeg, .png, .tif), kalitate handiko artxiboak izan beharko dute.

— Aurkeztutako jardunbide egokiari eta enpresari buruzko material grafiko eta digital hau:

1) Datu aipagarriak edo informazio osagarria, eta jardunbide egokia argitzen duten irudiak —gutxienez 2 edo 3—.

2) Enpresa eta haren jarduera aurkezteko irudiak —gutxienez 2 edo 3—.

Itun Berdeko Enpresen X. Topaketan sariak banatzeko egiten den ekitaldian jardunbide egokiak eta enpresa irabazleak aurkezteko euskarri bisual gisa baino ez da erabiliko material grafiko hori.

Parte hartzen duten enpresek entregatzen duten informazioa sariak zeini emango zaizkien erabakitzeko baliatuko da, eta isilpeko informazio gisa gordeko, salbu eta epaimahaiaren ustez publikitate egin behar zaien alderdiak, saria irabazi duten enpresei dagozkielarik eta sariarekin ikustekorik dutelarik.

8. oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkeztea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek —aldez aurretik Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen laburpen-iragarkia argitaratuko da—.

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2022ko irailaren 30era artekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, biak barne.

Deialdi honen eranskineko eredura moldatu beharko dira eskabideak, eta adierazten diren bitartekoak baliatuz aurkeztu: herritarrei laguntzeko bulegoetan, Gasteizko Udalaren egoitza elektronikokoaren bidez —<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/>— edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen ildotik legez aurreikusitako gainerako moduetakoren batean.

Udalaren webgune honetan daude oinarriak eta eskabide-orria: www.vitoria-gasteiz.org/itunberdea.

Epez kanpo aurkezten den eskabide oro ezetsi egingo da.

9. oinarria. Epaimahaia

Entitate hauen ordezkari banak osatuko duten epaimahaiak erabakiko du sariak zeini eman:

– Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila: Enpresen Zerbitzuko burua, edo hark ordezko izendatzen duena.

– ACLIMA. Euskadiko Ingurumeneko Industrien Kluster Elkartea: Zuzendari nagusia, edo hark ordezko izendatzen duena.

– Gasteizko Udaleko Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saila: Udalaren trantsizio energetikorako estrategiaren arduraduna, edo hark ordezko izendatzen duena.

Epaimahaiko kideak behartuta egongo dira konfidentzialtasuna gordetzera, aurkeztutako hautagaitzen inguruan, baita eztabaida eta bozketen inguruan ere.

Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea VIII. Sariak emango dituen epaimahaiaren lana errazte aldera, batzorde tekniko bat eratuko da, Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren arloko zinegotziak izendatua, zeinek hautagaitzen eta aurkeztutako dokumentazioaren alde aurreko balioespena egingo baitu.

10. oinarria. Sariak ematea

Ezingo da epaimahaiak sariak emateko orduan hartzen duen erabakiaren kontra jo. Erabaki hori isilpekoa izango da, eta ez zaie jakinaraziko enpresa irabazleei, ezta gainerako hautagaitzei ere, 2022ko azaroaren 24an Europa jauregian izango den Itun Berdearen Komunitateko Enpresen XI. Topaketan jendaurrean egiten den arte.

Sarietarako hautagaitza aurkezten duen enpresak posta elektronikoz jakinarazi beharko du (premiospactoverde@vitoria-gasteiz.org), sarien berri jendaurrean emateko data baino zazpi egun natural lehenago, nork ordezkaturako duen sari-banaketaren ekitaldian.

Sariren nahiz guztiak eman gabe utzi ahal izango ditu epaimahaiak, baldin eta aurkezten diren jardunbide onek nahikoa kalitaterik ez dutela irizten badio.

11. oinarria. Oinarriak onartzea

Ingurumen-jardunbide egokientzako Itun Berdea VIII. Sarietarako deialdian parte hartzeak oinarri hauek onartzea ekarriko du berekin.

12. oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Deialdi hau dela-eta egiten diren jarduketak gauzatzean, une oro beteko da datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen legedian xedatutakoa.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 29an

Administrazio Zerbitzuko burua
IGNACIO CEPEDA CRESPO

I. eranskina: eskabidea eta zinpeko aitortpena

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/50/70/85070.pdf>.

II. eranskina: fitxa teknikoa

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/es/25/70/62570.pdf>.